

# Nemesio ETXANIZen 100. Urteurrena dela eta\*

(On the Centennial of Nemesio ETXANIZ)

Urkizu, Patri  
Eusko Ikaskuntza  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48  
20007 Donostia

BIBLID [1137-4454 (2000), 18; 127-132]

---

*Artikulu honetan Nemesio Etxaniz apaiz eta idazle ospetsuaren berri ematen da bere jaiotztearen mendeurrena aitzakiatzat hartuz (Azkoitia, 1899-Donostia, 1982). Aipatzen eta aztertzen da zein nolako garrantzi handia izan zuen hala euskal kantaren berrikuntzan (Kanta-kantari, 1952) nola euskal teatroarenean (Izoko Aberatsa, Irulearen negarra, 1952), frankismoaren garai gogor haietan, eta nolako idazle handia zen, frogaturik utzi zuena bai bere poemetan (Lur Berri Bila, 1966), bai eta bere eleberrietan (Ameriketan galdua, 1966 eta Izotz kandelak, 1992), azken hau hil ondoren argitaratu izan dena.*

*Giltz-Hitzak: Kanta. Poesia. Antzertia. Eleberria. Euskal literatura.*

*En el presente artículo se informa acerca del renombrado sacerdote y escritor Nemesio Etxaniz con ocasión del centenario de su nacimiento (Azkoitia, 1899-Donostia, 1982). Se recuerda y analiza la gran importancia que tuvo tanto en la renovación de la canción vasca (Kanta-kantari, 1952) como en lo que se refiere al teatro vasco (Izoko Aberatsa, Irulearen negarra, 1952), en aquellos duros tiempos del franquismo, y el gran escritor que fue, como dejó bien probado en sus poemas (Lur Berri Bila, 1966), y novelas (Ameriketan galdua, 1966; Izotz kandelak, 1992), esta última publicada tras su muerte.*

*Palabras Clave: Canción. Poesía. Teatro. Novela. Literatura vasca.*

*Cet article nous parle du curé et écrivain renommé Nemesio Etxaniz à l'occasion du centenaire de sa naissance (Azkoitia, 1899-Donostia, 1982). On rappelle et on analyse la grande influence qu'il exerça aussi bien sur la rénovation de la chanson basque (Kanta-Kantari, 1952) que sur le théâtre basque (Izoko Aberatsa, Irulearen negarra, 1952), durant la dure époque du franquisme, et le grand écrivain qu'il fut, comme on peut le constater dans ses poèmes (Lur Berri Bila, 1966), et dans ses nouvelles (Ameriketan Galdua, 1966; Izotz kandelak, 1992), cette dernière publiée après sa mort.*

*Mots Clés: Chanson. Poésie. Théâtre. Nouvelle. Littérature basque.*

---

\*Deban, 1999-XI-12an, Joseba ULAZIA, Anton ALLIKA eta Pako SUDUPEREkin izandako mahai inguruan Patri URKIZUK egindako hitzaldia.

Arratsaldeon denoi.

Lehenik nere eskerrik beroenak EATAE (Euskal Antzerki Talde Amateurren Elkartea)-ri bere gonbitea dela eta Nemesio Etxaniz-en inguruan une batzuek eta gogoeta trukean iragai-teko aukera emateagatik.

Dударик gabe Pako Suduperen lanak (1996, 1997) funtsezkoak izateaz gain aski sako-nak dira haren bizitza eta obra behar bezala konprenitzearren, beraz, guk hemen esango ditugunak ertz-oharrak bezala jo ditzakezue, besterik gabe.

Hasiko naiz kontatzen nola ezagutu nuen Nemesio Etxaniz.

Mila bederatzirehun eta hirurogeita seiko urtarrilaren hogeita hiruan (1966-I-23) izan zen, nere oroitzapenak ondo baldin badaude. Duela hogeita hamahiru urte, beraz. Victoria Eugenia-ko aretoan Jaialdi bat ematen zuten eta hantxe Lurdex Iriondok kantatu ondoren Martxa Luzeari buruzko eta Lin-Pao mendiko kontua eta kantua, besteak beste, agertu zitzaigun On Nemesio sotana luze harekin *Baratzeko pikua hiru txorten ditu* kantari. Dударик gabe, ahots izugarririk ez izan arren grazia aparta zeukan apez moderno hark.

Eta gertakizun honek beretzat ere nahiko interesa izango zuen nonbait, honelaxe aipa-zen baitio Andima Ibiñagabeitiari idatzitako gutun batean:

*Ilbelta'ren 23'an, Donosti'ko VICTORIA EUGENIA Antzokian, zoragarritzko jaialdia izan genduan. Gure gazteak esnatu dira, gu ez aiña, ta or atera zaizkigu, teatro betearen aurrean gaurko kanta berri ta ye-ye aldeak euskeraz jantzita ematen. Ba-zan antxe jendea ta txaloka beroa.*

*Beti bezela, izan da norbait orrelakorik euskeraz ez degula bear esan duana; baiña iñosokeri oietan astia alperrik galtzeko biderik ez degu. Aurrera joan beharko degu, gure izkuntza gaurko jolasetan sartzen. Gaztediaren sailetan, euskera entzun dedila, ta joan ditezela zakurraren zerera, euskeraz sermoiak bakarrik entzun nai dituztenak. (1966-II-6).*

Gutun horretan bertan beste komentarioen artean Txillardegiren liburu argitaraberriari buruz iruzkin aski mingotsak botatzen zituen, bizitzaren laburra aipatzen eta nola ez, fede kontuan sentitzen zituen *krisiak*.

Gu garai hartako gazteok, - hemeretzi urte nituen nik orduan -, esna geundela uste genuen ere, eta gure argien eskasiak erakusten zigun arabera gure bidea ere egjin genuen. Kanta izan zen, dударик gabe garai hartako kontzientzia suspertzaile, eragile eta biziarazlerik garrantzitsuenetakoa. Baziren urte batzuk Etxanizek berak *Kanta-kantari (Aur-jolasak: Maite-kantak: Izadi-abestiak)* liburua plazaratu zuenez geroztik (1952).

Urte honetan bertan moldiztegian emanak zituen ere bi antzerki, *Izeko Aberatsa* eta *Irulearen negarra*. Kontrazalean Manuel Lekuonaren gaztelaniazko hitz batzuek zekartzan, honako hauek direnak, besteak beste:

*Un propósito de apostolado, es el que estos últimos años le decidió a lanzarse a la publicidad. Un propósito de moralización de la canción callejera. Tal es el propósito que anima su precioso tomito de poesía vasca que ha hecho popular el expresivo título de KANTA-KANTARI. Canta cantando bella y graciosamente, desterrar la canción procaz que está a punto de desoxigenar el ambiente moral de nuestras poblaciones y aldeas.*

Beraz, garbi dago apaiz haren helburua zein zen. Baina, nola iritsi zen Donostiako antzoki hartaraino, zein izan zen bere ibilbidea?

Azkoitin jaioa familia integrista batean, honek bultzaturik apaiz karrera hartu zuen eta 1912-1924 urteak Comillas-en eman zituen. Filosofia teologia baino gogokoago zuelarik. Ikastetxe berezi honetan topatu zituen zenbait euskaltzale, horien artean Orixe, eta hemen zegoela argitara eman zuen bere hitz-lauzko lehen lana, *Arraldea* izeneko ipuia (Argia, 1923).

1924eko azaroaren 30ean apeztu zelarik Arabako herritxo batean (Urarte) 1925-26 urteak igaro zituen eta ondoren 1926-36 urteak Bergaran. Betirako hunkituko zuten urte hauek, nabarmenki ageri denez bere *Izotz-Kandelak* eleberri autobiografikoan (1992).

Hemen hasi zen prestatzen gazteentzat euskal antzerkiak. Sudupekin esaten digunez, hementxe idatzi zituen *Peru Txinpart eta Anton Bare*, *Trapubiltzailea* eta *Izoko Aberatsa*. Azken hau Mendaron antzeztu omen zen 1945 inguruan eta Azkoitian 1951ean [ 1996:64].

Lehen bi obra hauen berri ez daukagu, - egia esan bada titulu bera duen Manuel Rekondo ezezagunaren obretarik bat, *Trapubiltzailea*, (*Izarra saila*, *Euskalerrian Alde*, 1921). Garai honetako albiste askorik ez izan arren ziur naiz zerikustekorik izan zuela 1934ean *Eusko Antzerti Eguna* zela eta *Bergarako Batzokiko* eta *Zarrontzale-Bazkuna* antzeztaldeekin udaberri hartan jokaturiko emankizunekin.

Bestalde, gerra-ondoko antzerti-munduaren piztuera bezala beti Maria Dolores Agirrerren *Aukeraren maukera azkenean okerra* 1949an Azpeitiko Nekazari Alkartasunak eraturiko antzerki norgehiagokan irabazle atera zenarekin eman dugu, baina balegoke Euskal Antzerti Ikuskizunen Historia sakonagoa egiteko premia eta bederen Iparraldean data hori baino aitzinagoko emankizunekin topatuko ginatke.

Adibidez, berrogeiko hamartean Etxaniz Deban izan zelarik, *Alostorrea* izeneko antzeztaldea sortu zuen eta 1947an Abeletxeren, hau da, Manu Ziarsororen (1902-1987) *Gabon Gabonetan* antzeztu zuten. Honek 1956an *Eguberri-aizeak* tituluarekin Antonio Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* moldatuz Urkixo saria irabazi zuen, zeinetan 22 antzerki ezberdin aurkeztuak izan ziren. Eta Augustin Zubikarai berak esaten digunez (1991), 1949an Miarritzen Euskal Lore Jokoak iragarri ziren eta tartean Antzerkiek ere izan zuten lekua, bertara zortzi lan aurkeztu zirelarik: Lehen saria hutsik utzi zen eta ondorengoak egile eta titulu hauenak izan ziren:

Pierre Larzabal, *Urchilotar horiek*, 10.000 libera.

Jean Lousteau, *Amaren heriotzea*, 5.000 libera.

J. Uarrain (J. Etxaide), *Amaur*, 5000. libera.

Eta bakarriketetan:

Augustin Zubikarai, *Itsasora*.

Jeanne Minaberri & A. Charriton, *Izariko zapeta*.

Mayi Elissagaray, *Maitetchoren ezkontza*.

Etxaniz Deba utzi eta sorterrira, Azkoitira itzuliko da Santa Krutz komentuko abade gisara, bertan hiru urte pasaturik. Hona kontatzen diona Zaitegiri herriko egoeraz:

*Azkoitin egundoko antzerki-taldea arkitu nuan. Guztia erderaz ari ziran lanean, eta nolako kanta eta jolasak gañera! Irratiz eta ziñez ematen dizkiguten gordinkeri guztiak, emengo gaztedia artua zeukaten...*(1951-IX-3).

Apezari zegokion lana, beraz, jokabide hau zuzentzea zen eta lehen kantekin bezala orain antzerkiak argitaratuz saiaturiko da. Ohitura zartzuela eta tragedia batekin, hain justu.

*Izoko Aberatsa* (1952) "Iru egintzadun eres-antzerki irrisua", dugu, alegia, zartzuela antze-ko ohiturazko komedia bat. Gaia honakoa. Zeraingo izeko aberatsa Kontxisik bi iloba ditu (Xabier eta Antoni) eta hil aurretik bere dirutza bisitatzera joango zaion lehenari utzi nahi dio. Ohizko gora-beheren ondoren azkenean bi ilobak elkarrekin maitemindu eta ezkondu egingo dira.

Kantez josia dago noski, eta batzuek oso ezagunak dira: *Ez da abarkadunik ez kapeladunik...* (Zentsuraren eraginez ote aldaera?), *Ana auxen duk lana...* (*Erla* bikoteak kantatzen zuena...)

*Irulearen Negarra* (1952) "Iru egintza ta atzezburua dituan zorigaitz-antzerkia". Noski, tragedia honek hiru ekitaldi ditu. Juan E. Gorostidiren lanaren gainean moldatua dago, hau halaber Benantzio Arakistainen *Tradiciones Vasco-Cántabras* (1866) liburutik hartutakoa delarik. Katalin Zubeltzu debarrarren eta Gaston bidartarraren amodio historia tristea ageri zaigu. Gaston amaren eskaeraz Deban sendatu eta maitemindu ondoren herrira itzultzen da eta hemen ezkonduakoa halabeharrez gerrara dihoa eta hemen hiltzen. Ondorioz, Katalina ere bihotz-minez hiltzen da eta ama Magdalena zoraturik dolorez, beti arituko da gorua iruten alabaren gorpua dagoen kaperatxoan. Tragedia hitz hauekin bukatzen da: *Madarikatua euskaldunen arteko gorrotoa*.

Drama Historiko baten aitzinean gaude [P.Urkizu, 1999], bertan ohiturazko eta fantasiazko zatitxoak txertaturik ageri direlarik. Hala, marinelen gora-beherak ageri zaizkigu eta haue-tariko baten ametsa, hiru olatuen herri ixtorio ezaguna da, alegia, esnezkoa, malkozkoa eta odolozkoa diren uhinen sinbolizazioa ematen zaigu iragarki tragiko gisa. Eta denon irudime-nean oraindik hain krudelki bizirik dagoen gerra zibilaren oihartzuna nabari da.

Ez dago antza oso gustora sorterrian eta gutunetan ageri den bezala, bai Parisera bai eta Guatemalara joateko asmoa agertzen die, Mirande, Ibiñagabeitia eta Zaitegiri. Asmo hau, ordea, hutsean geldituko zaio eta 1953tik 1982eraino, hots, heriotzeguna iritsi arte Donostian biziko da.

Hemen, urtero Santo Tomasetan eta San Sebastianetan jokutzen diren antzerkiekin ez dago oso pozik, tradizionalegiak, zahar kutsukoak direla uste baitu. Halaxe dio gutun batean Andima Ibiñagabeitiari:

*Bost urtian eta Ezer ez ta festa* eman zizkiguten. Beorlegi ta bere lagun zarrak ez dute antzerki berririk egin nai. [1956-XII-23]

Hau da, Martzelino Soroa eta Toribio Altagaren antzezlanak zaharkituak iruditzen zitzaizkion eta zerbait berrixeagoaren alde ageri zen. Hau dela eta 1958an *Antzerkiak* izeneko liburutxoaz plazaratuko du bertan lau lan hauek ageri direlarik: *Gabak zekarren eguna* (Arantzazuko saria, 1956), *Maite ere neurriz*, *Zotzean bizia*, eta *Gabon zauria*.

*Gabak zekarren zauria* antzerkia, drama historiko gisara ere antolatua dago, bertan Arantzazuko Ama Birjinaren irudiaren historia kontatzen delarik. Nola Errodrigo artzainak lau ardiren bila dabilelarik aurkitzen duen "Arantza-gainean" Ama birjina, zeinek eskatzen dion leku hartan kaperatxo bat eraik dadin. Hasieran Oñaztarren eta Ganboatarren arteko haserre eta borrokak ageri zaizkigu, hala nola herri literaturatik hartutako ipuina (Mari Gaizto Anbotokoa), ondoren Ama Birjinari esker, noski, - eta bidenabar, aipatzen ez diren frantziskotarrei esker -, bakea lortuko da Euskal Herrian. Ez dira, noski erromesen kantak, eta Salvatore Mitxelenaren eragina hauetan nabarmena da.

Lan honek Arantzazuko Saria irabazi zuen, baina handik urte batera oraindik saria kobratu gabe goen.

*Maite ere neurriz*, eguberrirako prestatu ohiturazko jostailua da, negarrez lehertzekoa, eta sentimendu onez gainezka dagoen historia kontatzen da bertan. Joakin medikua Mikel eta Ana seme-alabekin eta neskame batekin bizi da, tristeziak erabat jota, duela hamazazpi urte emaztea galdu zuelako. Eguberri egunean ageri da eskale bat atarian hotzez akabatzen eta Anak aterpea eta harrera emango dio eskaleari. Honek Lore du izena. Azkenean jakiten da, hau hil zorian dagoelarik atarian bi seme-alaben ama eta aitaren emaztea zela, jelsia eta maitasun gehiegiz etxetik bidalitakoa.

*Zotzean bizia*, eguberriko beste jostailua da. Antonen bakarrizketa luze batez hasten da. Ameriketara dago galduta, eta bere buruaz beste egitera dihoanean eguberri-kanta bat entzuten du euskaraz eta bere amaz oroitzen da. Botatzen du pistola lurrera eta honen zaratak erakartzen du etxe hartako nagusia eta azkenean eguberri hura euskaldun familia on batean igaroko du. Nabari zaio bada ikutu existentzialista, puntu beltza, azkenean sentimendu onek, kristauek irabazten duten arren, apaiz batek idatzitako antzerki bati dagokion bezala, noski.

*Gabon zauria*. Eguberrietako beste koadro bat. Aski laburra da aurrekoa bezala. Oraingoan Juana eta Joxe Marik haur bat dute seaskan. Juanak amets gaizto bat dauka, eta hau egia bilakatzen da, ezen Xabiertxo semea hil egiten da eta aingerutxoekin zerura baitihoa.

Komedia, drama realista, sinboliko eta historikoak ditugu antzerki hauek, eta noski, lehenean ezik beste guztietan apaiza ateratzen da gailen. Ibiñagabeitiari eta Zaitegiri idatzitako gutunetan nabarmentzen dira gutxi gora behera nondik dihoazen bere antzerki jaidura eta poetikak. Hona dioena Andimari:

JARRAI taldekoak or dabilta bere lanetan aurrera. Neure euskeralbena lto... edo Ezkondu (*R. Añibarroren Mujeres en Berrigorria-rena*) izenekoa Gabon egunean bota zuten eguardian Donostiko Antzoki Zarrean. Jendea bapo etorri zan. Aurreko igandean erderazko antzerkira baiño geiago beintzat... Jorrailean botako dute Kristalezko iruditxoak 'El zoo de cristal' en euskeralbena. Gure jendea ez tet uste ortarako gerturik dagoenik. (1962-II-2)

Eta beste honakoa zioen Zaitegiri:

Abendua 'ren 21an Lartzabalen ETXAHUN bota zuten. M<sup>a</sup> Dolores Agirrerren taldeak; eta 23'an JARRAI taldeak Ertzaña etxean, on Manuel Lekuonaren iloba gazte batek euskeratua. Oso ederki azkenengo au. (1962-X-1).

Ikus dezakegunez ez zetorren bat gazteek hartzen hasiak ziren bideekin antzertian. Tennessee Williams (1911-1983) amerikar antzerkigilearen obra, drama psikologiko-errealistari ausartegi eta gehiegixko zeritzon. Honek izugarrizko arrakasta izan zuen Broadway-en *The Glass Menagerie*-kin, eta bere obrak zinera iraganik Kazan eta beste zenbait zuzendari bitarteko hobereentsuentzat jo ditzakegu: *Desio deitu tranbia* (1947), *Zinkezko teilatu gaineko katemea* (1958), *Iguanako gaua* (1962)... Honen formula beti berdintsua izan da, alde batetik gai ausartak aurkeztea eta bestetik hauek konbentzio formalak errespetatzea 'antzerkia ongi fabrikatzea'.

Etxanizen iritzi berdintsua zeukan Antonio Labaienek, honakoxea baitzioen: *Teatroa berri berritu bear omen! Ondo dago asmoa, bañan Katua zinkezko tellatu gañean ta antzeko berrikeri ezerezak egitekoan obe da klasikotan gelditu*. [1960]

Teatroaz bezala berdina pentsatzen du egiten ari den poesia sozialaz. Begira, adibidez, Gabriel Arestiz zioena bere adiskide Andimari.

Emen ARESTI darabilkigu gailen. Eta bereala sinistu du bera olerkari dala. Euskal-Aste'ko egunotan entzun diogu gazte orri itzaldi bat. Olertia zer dan Aita Santu bezela erabakitzen du guzia. Mordoilokeriak arro botatzen ditu erronka joaz bezela... Olerkari, euskera garbian POETA omen-da... Poeta izateko berriz mandatúa, mandatúa, mandatúa bear omen-da. Erderazko azentu nardagarriz eta ezer aditzen ez niola egon nintzan. Azkenerako begiak itxita entzun bear izan nion ezin baiziteken eraman aren imintzio, errenkura ta kinu-saila. [1960-IX-9].

Orain, LIZARDI SARIRAKO olerkiak irakurri bearrean nazu; maiko izendatu bai naute aurten, olerkien aindasuna neurtzeko. Aresti' renak izan bear dute irakurri ditudanak. Ain luze ta aspergarri ta entzun-gaitzak! Jauna! ta ori omen-degu gaurko olerkaririk onena euskeraz. Nik ezer ez dakit eta ezer ez det ulertzen aren lanetan. [1966-II-8].

1966an Etxanizek argitaratu zuen poesia, eleberria, irrati-antzerkia antologia bat, *Lur Berri Billa* izendatu zuena. Nobelaren titulua *Ameriketara dago*. Hona gaia laburbildua.

Basaburu baserriko alaba baten gora-beherak dira. Gogoz kontra ezkontzen dute Juana Martinekin, baina honek ehizerako gustoa besterik ez duenez Mikolas anaia ttikiak seme bat egingo dio (Pako), eta etxeko ohorea ez galtzarren Juana Ameriketara bidaltzen dute. Hemen Benito errioxarrekin sei seme-alaba izango ditu elizatik kanpo. Azkenean, itzultzen dira aberasturik Logroñora, senarraren sorterrira, baina hau etxe-kalte huts bat da. Juana joaten da ama bisitatzera, baina honen kezka bakarra alaba elizaz ezkontzea da, eta Benitok ez duenez hori nahi Ameriketara itzuliko da Juana bere alaba ttikiarekin. Hemen aspalditik galdua zuen semea, Pako aurkituko du, Rosa galiziar zintzoarekin eta langile amorratuak direnez aberats bilakatu dira.

Historia hau, Etxanizen beste guztiak bezalaxe apaiz baten begietatik ikusia dago. Elizatik kanpo, antza, ez dago bizimodu zuzenik, dena da "sasi", sasi-gizonak, sasi-semeak eta horrelakoak. Badu neurri batean eta tituluan bertan R. M. Azkueren eleberri batekin antza, hau da, *Ardi Galdua* obrarekin, non Ameriketara joatea fede katolikoaren galtzeko arriskua, amildegia eta galbidea besterik ez den.

Andimak egindako iruzkinean hasiera goibela azpimarratzen du, eta hori ez datorrela ondo tango, fox rumba merenge eta abar euskaraz lehenengoz eman zizkigun idazle jatorrarekin.

Badirudi, beraz, urte batzuetan kulturaren eta politika arloan aski ausarta izan zela, - hor daude lekuko gisara gobernadore zibilekin izan zituen gora-beherak, gutun-trukeak eta Epailleen zigorra -, baina ohitura eta gizarte alorrean aski tradizionala zela. Eta aitzindari izan arren 60ko eta 70ko hamarreetan eman ziren benetazko kultura, ohitura eta euskararen iraultzetara, - 68an ezarri baitziren batez ere Arantzazuko Biltzarrean euskara batuaren hastapen eta oinarri nagusienak -, ez zuela jakin ere egokitzen.

Dena den eta ideiak ideia, gure oroimenean betirako gelditu da lehen aldiz ikusi genuen apaiz alai eta bizi haren irudia, txatxatxa kantari.

## BIBLIOGRAFIA

ETXANIZ, N., 1923, *Arraldea*. Donostia, Argia.

– 1952, *Kanta-kantari*. Bilbao, Ordorika.

– 1952, *Izoko Aberatsa. Irulearen negarra*. Gasteiz. Montepío Diocesano.

– 1958, *Antzerkiak. Kontu-kontari*. Zarautz, Itxaropena.

– 1966, *Lur Berri Bila. Donostia*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa.

– 1992, *Izotz-Kandelak*. Donostia, Elkar.

IBIÑAGABEITIA, A., 1967, "Kultur-Sailla. Lur Berri-Billa. Etxaniz' tar Nemesi", *Eman*, 1967, 22.

LABAIEN, A., 1960, "Erri-teatroa", *Egan*, XIII, 73-75.

SUDUPE, P., 1996, *Nemesio Etxanizen Biografia eta ideologia*. Bilbo, BBK.

– 1997, *Nemesio Etxaniz (1899-1982)*. Bidegileak. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

URKIZU, P., 1999-1, "Antonio Maria Labaien (1898-1994) eta Euskal Antzertia", *Eusker*a, Bilbo, 37-51.

– 1999, "Anacronismo, panfleto y poesía en el teatro histórico vasco del postfranquismo", *Teatro Histórico (1975-1998)*. *Textos y representaciones*. Visor, Madrid.

– (ed.), 2000, *Andima Ibiñagabeitiaren gutunak (1935-1967)*. Zarautz. Susa.

ZUBIKARAI, A., 1991, *Augustin Zubikarai eta euskal antzertia*. Donostia. Eusko Jaurlaritza.